

Gender Trouble **(Generoa ezbaian)**

Hitzaurrea, 1999¹

Judith Butler

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Duela hamar urte bukatu nuen *Gender Trouble* liburuaren eskuizkribua, eta Routledge etxera bidali nuen argitaratzeko. Ez nekien testuak hainbeste irakurle izanen zituenik, ez teoria feministan «esku-hartze» probokatzailerik izanen zenik, ez *queer* teoriaren oinarrizko testutzat hartuko zenik. Liburuaren bizitzak nire helburuak gainditu ditu, eta hein batean hala izan da, segur aski, testuak hartu duen testuinguru aldakorreratik. Idatzi nuenean, banekien neure burua nolabaiteko borrokan eta aurkakotasunean zegoela feminismoaren molde jakin batzuekin, nahiz eta banekien, baita ere, testuak feminismoaren beraren parte izan behar zuela. Bere baitako kritikaren tradizioan idazten nuen orduan, zeinak helburu baitu kritika barne den pentsamenduaren mugimenduko oinarrizko hiztegia aztertzea, modu kritikikoan. Bazen eta artean ere bada arrazoi bat kritika molde hori erabiltzeko, eta ezberdindu behar da autokritikaren —horrek mugimenduaren bizitza demokratikoagoa eta integraztaileagoa segurtatzen du— eta kritikaren ar-

¹ Testu honen euskarazko lehenengo bertsioa www.elearazi.org atarian kaleratu zuen itzultzaileak.

tean, mugimendua erabat ahultzeko xede duena. Bistan denez, beti da posible bi horiek nahastu eta gaizki ulertzea, baina espero dut halakorik ez dela gertatuko *Gender Troublen* kasuan.

1989an asmorik behinena zen literatur teoria feminis-taren suposizio heterosexual nagusi bat kritikatzeari. Generoaren mugei eta jabetzari buruzko auresuposizioak egiten dituzten ikuspegi horiei kontra egin nahi nien, auresuposiziook maizenik onartzen diren maskulinitate eta feminitate kontzeptuetara mugatzen baitzuten generoaren esanahia. Uste nuen, eta oraindik ere uste dut, generoaren esanahia bere auresuposizioen praktikan mugatzen duen edozein teoria feministak generoari buruzko arau baztertzailak ematen dituela feminismoaren baitan, eta horrek ondorio homofobikoak dakartza sarritan. Iruditzen zitzaidan, eta oraindik ere iruditzen zait feminismoak saiatu behar duela generoaren zenbait adierazpen ez idealizatzen, zeren eta horiek, aldi berean, hierarkia eta bazterketa molde berriak sortzen baitituzte. Bereziki, kontra egiten nien generoaren adierazpen jakin batzuk faltsuak edo eratorriak, eta beste batzuk, aldiz, egiazkoak eta originalak zirela predikatzen zuten egiaren arau haiei. Asmoa ez zen testuaren irakurleek eredutzat har zezaketen bizimolde generodun berri bat aurkeztea; aitzitik, testuaren helburua generoaren aukera-eremua zabaltzea zen, horietarik zer aukera molde garatu behar-ko litzatekeen zehaztu gabe, ordea. Norbaitek galde lezake zertarako balio duen «aukera-eremua zabaltzeak», baina esanen nuke mundu sozialean bizitzea zer den eta «ezinezko», irakurtezin, gertagaitz, irreal eta ez legitimoa zer den dakien inork ez duela halakorik galdetuko.

Gender Trouble liburuaren asmoa zen agerian uztea auresuposizio ohiko eta biolento batzuek zer modutan eragozten zuten bizitza generodunean zer den posible

pentsatze hutsa. Halaber, testuak bilatzen zuen bertan behera uztea saiakera oro egiaren diskurtso bat gartzeko, zeinak helburu baitzuen gutxiengoa ziren genero- eta sexu-praktikei zilegitasuna kentzea. Horrek ez du esan nahi gutxiengo diren praktika guztiak onargarriak eta goraipatuak izan behar dutenik; bai, ordea, hausnartzeko gai izan behar-ko genukeela praktika horiei buruzko edozein erabaki hartu aurretik. Gehien kezkatzen ninduen zera zen: praktika horiek sortzen zuten panikoak zer modutan galarazten zuen horien inguruko hausnarketa. Genero bitar horiek desegitea, esaterako, hain al da munstrokeria edo beldurgarria non definizioz ezinezkotzat jo behar baita, eta non heuristikoki baztertu behar baitugu generoa hausnartzeko edozein saiakeratatik?

Auresuposizio mota horietako batzuk garaiko «feminismo frantsesa» zeritzon horretan aurki zitezkeen, eta arrakasta handia lortu zuten literatur ikastunen eta zenbait teorialari sozialen artean.

Nahiz eta sexu-diferentziaren fundamentalismoaren muinean zetzan heterosexismoa baztertu, postestrukturalismo frantsesetik zerbait hartu nuen nire planteamenduak osatzeko. *Gender Troublen* egindako lana itzulpen kulturalako azterketa bat izan zen, funtsean. Generoaren teoria estatubatuarrak eta feminismoaren egoera politiko zaila, beraz, teoria postestrukturalistaren bidetik azaldu ziren. Nahiz eta, batzuetan, postestrukturalismoa formalismo gisara aurkezten zaigun —testuinguru sozial eta helburu politikoetatik urrun, alegia—, ez da hala gertatu estatubatuarren azkenaldiko eskuratzee-kin. Izan ere, nire asmoa ez zen postestrukturalismoa feminismoari «aplikatzea», baizik eta aukera ematea teoria horiek birformulazio espresuki feminista batetik aztertzeke. Formalismo postestrukturalistaren defen-

datzaile batzuk ez datoz bat zenbait obratan —*Gender Troublen*, kasu— postestrukturalismoak jasotzen duen joera «tematiko» aitortuarekin, eta, era berean, ezker kulturalaren eremuan, postestrukturalismoaren inguruko kritikak oso eszeptiko azaldu dira politikoki progresista den oro haren premisetatik erator daitekeela dioen baieztapenaren aurrean. Alta, ikuspuntu batean zein bestean, postestrukturalismoa zerbait bateratu, puru eta monolitikotzat hartzen da. Azken urteotan, ordea, teoria hori, edo teoria multzo hori, genero- eta sexualitate-ikasketetara eraman da, ikasketa postkolonial eta arraza-azterketetara. Hasierako formalismoa galdu egin du, eta bizitza berri eta lekualdatua lortu du teoria kulturalaren eremuan. Aspaldiko eztabaidagai da neure lana edo, besteak beste, Homi K. Bhabha, Gayatri Chakravorty Spivak eta Slavoj Žižek idazleen lanak kultur ikasketen edo teoria kritikoaren barruan sartu behar ote diren; baliteke, ordea, galdera horiek berek agerian uztea bi enpresen arteko alde bortitza lausotzen ari dela. Badira teoriarriak aldarrikatzen dutenak aurreko hori guztia kultur ikasketen barruan dagoela, eta badira kultur ikasketetako ikertzaileak beren burua teoria molde guztien aurka aurkezten dutenak (alta, esanguratsua da bide horri ez jarraitzea Stuart Hall-ek, Britainia Handiko kultur ikasketen sortzaileetako batek). Baina eztabaidaren bi aldeek batzuetan aherentzia egiten dute teoriaren profila aldatu egin dela, hain zuzen, jabetze kulturalengatik. Nahitaez purua ez den eremu berri bat du teoriak, non itzulpen kulturalaren ekintzan bertan sortzen baita, itzulpen kultural gisara. Ez da historizismoak teoria lekuz aldatu duela, eta ez da teoriaren historizazio huts bat gertatu, zeinak azaltzen baititu errazen orokortu daitezkeen aldarrikapenen muga kontingenteak; aitzitik, teoria agertzen zaigu zerumuga kulturek bat egiten

duten puntuan, non itzulpenaren beharra zehatza baita eta horren arrakastarako aukera, berriz, dudakoa.

Gender Trouble «teoria frantses» ean oinarritzen da, eta hori, aldi berean, eraikuntza amerikar bitxi bat da. Ameriketako Estatu Batuetan baino ez ditugu aurkituko hainbeste teoria ezberdin elkarri lotuta, nolabaiteko batasun bat osatuko balute bezala. Nahiz eta liburua hizkuntza askotara itzuli den eta eragin handia izan duen batez ere Alemanian, generoari eta politikari buruzko eztabaidetan, beste herrialde batzuetan baino askoz geroago agertuko da Frantzian —azkenean argitaratzen baidute—. Hori aipatu nahi dut argi uzteko testuaren itxurazko frantziar kutsua urrun dagoela Frantziatik eta teoria frantsesaren bizitzatik. *Gender Trouble* saiitzen da, aldarte sinkretiko batean, hainbat intelektual frantses batera interpretatzen (Lévi-Strauss, Foucault, Lacan, Kristeva, Wittig), zeinek gutxitan bat egin baitzuten, eta zeinen irakurleek Frantzian oso gutxitan, edo sekula ez, irakurri baitzuten besteetarik inor. Hain zuzen, testuaren nahas-mahas intelektual horrek egiten du amerikar, eta aldi berean testuinguru frantsesarentzat arrotz. Efektu bera sortzen du «genero» ikasketen tradizio soziologiko eta antropologiko ingeles-amerikarrean testuak jartzen duen indarrak; tradizio hori urrundu egiten da ikerketa estrukturalistan sortu zen «sexu-diferentzia» ren diskurtsotik. AEBn testuak eurozentrismo izateko arriskua du, baina Frantzian teoriaren «amerikanizazio» gisako mehatxu bat da, liburua argitaratzea pentsatu duten editore frantses urrien hitzetan.

Jakina, «teoria frantsesa» ez da testu honetako hizkuntza bakarra. Hainbat teoriekin izandako engaiamendu luze baten ondorioz sortu da, hala nola, teoria feministarekin, gizarteak eraikitako generoari buruzko eztabaidekin, psikoanalisi eta feminismoarekin, Gay-

le Rubin-ek generoari, sexualitateari eta ahaidetasunari buruz egindako lan bikainarekin, trabestismoari buruzko Esther Newton-en ikerketa aitzindariekin, Monique Wittigen idatzi teoriko eta fikziozko lan zoragarriekin, eta humanitateetako ikuspegi gay eta lesbikoekin. Feminista anitzek 1980ko hamarkadan ontzat hartzen zuten lesbianismoak feminismoarekin bat egiten zuela feminismo lesbikoan; alta, *Gender Trouble* ezeztatu egin nahi zuen jardun lesbikoak teoria feminista gauzatzen duela zioen ideia, eta bi kontzeptuen artean lotura korapilatsuagoak ezarri nahi zituen. Testuan, lesbianismoak ez dakar itzulera bat emakume izatean datzan garrantzikoena den horretara; ez du feminismoa sagaratzen ez eta emakumea ardatz duen mundua erakusten ere. Lesbianismoa ez da sinesmen politiko batzuen burutze erotikoa (sexualitatea eta sinesmena molde askoz konplexuagoan lotzen dira, eta maiz ez datoz bat). Aitzitik, testuak galdetzen du sexu-jardun ez arauemaileek nola jartzen duten zalantzan generoaren egonkortasuna analisi kategoriala gisara. Nola behartzen dute sexu-jardun jakin batzuek «zer da gizon bat, zer emakume bat» galdera? Uste bada generoa dagoeneko ez dela sexualitate arauemailearen bidez indartzen, ba al da *queer* testu inguruetara mugatzen den genero krisi bat?

Sexu-jardunak generoa ezegonkortzeko boterea duela-ko ideia Gayle Rubin *The Traffic in Women* liburua-
ren irakurketatik sortu zen, eta sexualitate arauemaileak genero arauemailea indartzen duela baieztatzeko balia nahi izan nuen. Labur esanda, marko teoriko horren arabera, emakume gara egitura heterosexual nagusiaren barruan emakume gisara funtzionatzen dugun heinean, eta egitura hori zalantzan jartzeak ekar dezake generoan betetzen dugun lekuaren zentzua nolabait galtzea. Uste dut hori dela testu honetako «generoaren

auzia»ren lehenengo formulazioa. Saiatu nintzen ulertzen «gay bihurtzean» batzuek sufritzen duten izuaren eta antsietatearen parte bat, hala nola, generoan beren lekua galtzeari beldurra edo beldurra ez jakiteari nor izanen diren genero ustez «bereko» norbaitekin oheratzen badira. Horrek nolabaiteko krisia sortzen du ontologian, bai sexualitate bai hizkuntza mailan. Auzi hori larriagotu egin da generoa pentsatzeko molde berri anitzak kontuan hartu ditugun heinean, hain zuzen, transgenero eta transexualitatearen, gurasotasun gay eta lesbikoen eta identitate lesbiko maskulino eta femenino berrien argitan sortu direnak. Noiz eta zergatik egiten du, esaterako, seme-alabak dituen zenbait lesbiana maskulinok «aita-rena» eta beste zenbaitek «amarena»?

Eta zer gertatu da Kate Bornstein-ek proposaturiko kontzeptuarekin? Horren arabera, transexual bat ezin da «emakume» edo «gizon» izenekin definitu, baizik eta hari buruz mintzatzeko aditz aktiboak erabili behar dira, zeinek aditzera ematen baitute identitate berria «den» etengabeko transformazioa, edo hain zuzen, generoaren identitatearen izatea zalantzan jartzen duen «bitartekotasun» izaera. Lesbiana batzuek aldarrikatzen dute maskulino izateak ez duela zerikusirik «gizona izatearekin»; beste batzuek, ordea, defendatzen dute beren izaera maskulinoa gizon estatus desiratura heltzeko bidea baino ez dela edo ez zela izan. Paradoxa horiek ugaritu egin dira azken urteotan, eta agerian uzten dute liburuak aurreikusi ez zuen generoari buruzko eztabaida molde bat.

Baina orduan zein da nabarmendu nahi nuen generoaren eta sexualitatearen arteko lotura? Bistan denez, nire asmoa ez da aldarrikatzea sexu-jardun moldeek genero jakin batzuk sortzen dituztela, baizik eta esatea heterosexualitate arauemaileetako egoeratan generoa zain-

tzea maiz erabiltzen dela heterosexualitatea indartzeko modu gisara. Catharine MacKinnon-ek auzi horri buruzko planteamendu bat eskaintzen du, nirearekin antza baduena, baina, era berean, ez gatoz bat zenbait gauza erabakigarri eta garrantzitsutan. Honela dio:

Pertsona baten ezaugarria balitz bezala geldo badago, ezberdintasun sexualak genero itxura hartzen du; jendar-teko harreman gisara mugimenduan, aldiz, sexualitate itxura hartzen du. Generoa sortzen da gizonen eta emakumeen arteko aldearen sexualizazio molde zurrun gisara.

Ikuspegi horren arabera, hierarkia sexualak generoa sortzen eta indartzen du. Baina izaera arauemaile heterosexualak ez du generoa sortzen eta indartzen; kontrara, generoaren hierarkia ezkututzen da harreman heterosexualen atzean. Generoaren hierarkiak generoa sortzen eta indartzen badu, eta generoaren kontzeptu eragile bat aurreuposatzen badu, orduan generoak dakar generoa, eta formulazioa tautologian bukatzen da. Baliteke generoaren hierarkiak bere burua erreproduzitzeko dituen mekanismoak zehaztu nahian aritzea MacKinnon, eta ez besterik, baina ez da hori esaten duena.

«Generoaren hierarkia» aski al da generoa sortzen duten baldintzak azaltzeko? Noraino eragiten dio generoaren hierarkiak heterosexualitate gutxi gorabehera derrigorrezko bati, eta zer maiztasunekin egiten da generoaren arauen zaintza, hain zuzen, hegemonia heterosexuala sendotzeko?

Katherine Franke-k, arlo juridikoko teorialari garaikideak, modu berritzailean erabiltzen du bai ikuspegi feminista bai *queer* ikuspegia; azaltzen duenez, generoa ekoizteko generoaren hierarkiaren nagusitasuna ontzat

ematean, MacKinnonek sexualitateari buruz pentsatzeko ustezko eredu heterosexuala ere onartzen du. Frankek MacKinnonena ez bezalako eredu bat proposatzen du generoaren bereizketa azaltzeko, modu eraginkorrean aldarrikatzen duena sexu-jazarpena dela generoa sortzen duen alegoria paradigmaticoa. Bereizketa oro ezin da jazarpentzat jo; jazarpen-ekintza izanen da, esaterako, pertsona bat genero jakin batera «bihurtzen» denean. Baina badira generoa sendotzeko beste modu batzuk ere. Beraz, Frankerentzat, garrantzitsua da behin-behineko bereizketa egitea generoaren eta sexu-bereizketaren artean. Gayek, kasu, bereizketa negatiboa jasan dezakete lanpostu kontuetan, genero-arau onartuekin «itxuraz» bat egiten ez dutelako. Halaber, baliteke gayen kontrako sexu-jazarpenak balio ez izatea generoaren hierarkia babesteko, baizik eta generoaren izaera arauemaile sustatzeko.

MacKinnonek sexu-jazarpenari buruzko kritika indartsua egiten badu ere, bestelako arautze bat ezartzen du: generoa izateak esan nahi du aurretik mendekotasunezko harreman heterosexual bat ezarri dela. Maila analitiko batean ekuazio bat egiten du, zeinak arrazoiketa homofobiko molde nagusi batzuen kutsua duela baitirudi. Horrelako ikuspegi batek generoaren sexu-ordenamendua sustatu eta baimendu egiten du, gizon diren gizonak heterosexualak eta emakume diren emakumeak heterosexualak izanen direla baieztatzean. Bada bestelako ikuspegi multzo bat, dio Frankek, hain zuzen genero-ordenamendu molde horri kritika egiten diona. Generoaren eta sexualitatearen arteko harremanari buruzko ikuspegi sexista eta feministaren artean bada alderik, beraz: sexistak dio emakume batek bere emetasuna azaltzen duela soilik koito heterosexualaren ekintzan, non bere mendekotasuna bere plazer bihurtzen baita (esen-

tzia bat dario, eta emakumearen mendekotasun sexualizatuan sendotzen da); ikuspuntu feministak, aldiz, aldarrikatzen du generoa eraitsi behar dela, deuseztatu, edo anbiguo bihurtu, zeren eta beti izan baita emakumearen mendekotasun ikur. Azken ikuspuntu horrek lehenengoaren deskribapen ortodoxoaren boterea onartzen du, eta deskribapen sexistak dagoeneko ideologia boteretsu baten gisara funtzionatzen duela aitortzen du, nahiz eta uko egiten dion.

Gai honekin tematu nahi dut zenbait *queer* teoriarik generoaren eta sexualitatearen artean bereizketa analitiko bat marraztu duelako, bien arteko kausazko edo egiturazko lotura baztertu duelako. Horrek zentzu handia du, nondik begiratzen zaion: bereizketa horrekin esan nahi bada izaera arauemaile heterosexualak ez lukeela generoa ordenatu behar, eta ordenamendu horri aurka egin beharko litzaiokeela, erabat ados nago ikuspegi horrekin. Alta, baldin eta horrekin adierazi nahi bada (deskriptiboki esateko) ez dagoela generoaren arautze sexualik, uste dut indar handienaz homofobiaren aurka egiten dutenek ez dutela aintzat hartzen homofobiak funtzionatzeko duen moduaren dimentsio garrantzitsu bat, nahiz eta ez bakarra. Hala ere, aitor dut generoaren subertsioan aritzeak ez duela sexualitateari eta sexu-jardunari buruzko deus ekarri behar. Generoak anbigua izaten segi dezake sexualitate arauemailea aldatu edo birbideratu beharrik gabe ere. Batzuetan, genero-anbiguotasuna erabiltzen da, hain zuzen, sexu-jardun ez arauemailea zigortu edo desbideratzeko, eta horrela sexualitate arauemaileak bere horretan segi dezan lortzeko. Beraz, ezin da loturarik ezarri, esaterako, transexual edo transgeneroaren eta sexu-jardunaren artean, eta joera heterosexual, bisexual eta homosexual bereizketa ezin da aurreikusteko moduan zehaztu genero alda-

tze edo nahaste baten itxurazko joan-etorrietatik abiatuta.

Azken urteotan lan handia eskaini diot *Gender Troublen* azaltzen den performatibitatearen teoria argitzeari eta berraztertzeari. Zaila da preseski zehazten zer den performatibitatea, ez «performatibitate»ak adieraz dezakeenari buruzko iritzia denborarekin aldatu delako bakarrik (gehienetan kritika bikainei erantzuteko), baizik eta beste askok kontzeptua bere egin eta beren modura eman dutelako. Hastapenetan, generoaren performatibitatea ulertzeko gakoa Jacques Derridak Kafkaren *Before the Law* lanari egin zion irakurketak eman zidan. Horretan, legeari itxaroten diona legearen atearen aurrean esertzen da, eta nolabaiteko indarra lotzen dio zain daukan lege horri. Esanahiaren agerpen fidagarri bati aurrea hartzea da modua autoritate hori esleitu eta ezartzeko: aurrea hartzeak erakartzen du horren objektua. Ez dakit ez ote dugun itxaropen berarekin jokutzen generoari dagokionean, hots, agerian gera daitekeen barne-esentzia batekin aritzea, funtsean, aurreikusitako fenomeno bera sortzen duen itxaropenarekin. Hortaz, lehenengo kasuan, generoaren performatibitatea metalepsi horren inguruan datza, non generoa duen esentzia baten aurreikuspenak sortzen baitu kanpokotzat jotzen duen zerbait. Bigarren kasuan, performatibitatea ez da ekintza bakartua, baizik eta errepikapena eta erritua, eta efektuak lortzen ditu gorputz baten testuinguruan gertatzen den naturalizazioaren bidez, hein batean, kulturak babesten duen aldi baterako iraunaldizat hartzen dena.

Galdera garrantzitsu anitz egin zaizkio doktrina horri, eta bereziki bat da hemen aipatzekoa. Generoa performatiboa delako ikuspegiak agerian utzi nahi zuen generoaren barne-esentziazat dugun hori ekintza multzo jarraitu batek eraikitzen duela, eta ekintzok aldarrika-

tzen dira generoan oinarrituriko gorputzaren estilizazioaren bidez. Horrela, bada, argi uzten da norbanakoaren «barne» ezaugarritzat dugun hori gorputz-ekintza jakin batzuen bidez aurreikusten eta sortzen dugun zer-bait dela, natural bihurturiko keinuen haluzinaziozko efektu bat, azken batean. Horrek esan nahi al du psikeari buruz «barne»tzat hartzen den guztia, ondorioz, kanporatu egiten dela, eta barnetasun hori metafora faltsua dela? Nahiz eta, bistan denez, *Gender Trouble* generoaren malenkoniari buruzko lehenengo eztabaidan barne-psike baten metafora baliatu, enfasi hori ez zitzaion aplikatu performatibitatearen beraren pentsamenduari. Bai *The Psychic Life of Power* bai gai psikoanalitikoei buruz kaleratu ditudan azken artikuluak saiatu dira auzi hori onartzen; jarrera hori liburuaren lehenengo eta azkeneko kapituluaren arteko haustura gatazkatsu gisara ulertu dute anitzek. Uko egingen nioke psikearen barne mundu guztia ekintza multzo estilizatu baten ondorio baino ez dela dioen ideari, baina, hala ere, oraindik ere uste dut psike munduaren «barnekotasuna» aurreuposatzea akats teoriko garrantzitsua dela. Munduaren ezaugarri jakin batzuk, ezagutzen eta galtzen dugun jendea barne, norbanakoaren «barne» ezaugarri bihurtzen dira, baina barneratze horren bidez eraldatu egiten dira, eta hain zuzen, barne-mundu hori (hala izendatzen baitute kleiniarrek) psikeak gauzatzen dituen barneratze horien ondorio gisara eraikitzen da. Horrek iradokitzen du performatibitatearen teoria psikiko bat, zeinak azterketa sakonagoa eskatzen baitu.

Nahiz eta testu honek ez dion erantzuten gorputzaren materialtasuna guztiz eraikia dagoenez galderari, hori izan dute ardatz ondoren egin ditudan lan anitzek, eta, beraz, espero dut argigarri gertatuko zaiela irakurleei. Ikastun zenbaitek performatibitatearen teoria arra-

za kontuetara bihurtu ote daitekeen auzia aztertu dute. Aipatu nahiko nuke generoari buruzko diskurtsoaren atzean, esplizituki aztertu beharreko moduan, etengabean ezkututzen direla arrazazko auresuposizioak, eta arraza eta generoa ez lirakekeela analogia sinpletzat hartu beharko. Beraz, galdera moldatzea proposatuko nuke, hots, ez performatibitatearen teoria arraza kontuetara bihur ote daitekeen, baizik eta zer gertatzen zaion teoriari arrazarekin nahasten saiatzen denean. Eztabaida horietako anitzek ardatza jarri dute «eraikuntzak» duen estatusen, arraza eta generoa modu berean eraiki ote diren. Uste dut eraikuntzaren azalpenetarik bat berak ere ez duela balioko, eta kategoria horiek beti jokatzen dutela elkarren oinarri izatera, modurik boteretsuenean antolatzeko beti jotzen duela batak bestearengana. Hortaz, arraza-generoaren arauen sexualizazioari hainbat betaurrekorekin begiratu ahal zaio aldi berean, eta azterketa horrek generoaren mugak argi bereizteko aukera emanen digu, analisi-kategoria baztertzailen baten gisara.

Liburu hau osatzen duten zenbait tradizio eta eztabaida akademiko zerrendatu ditudan arren, ez da nire asmoa orrialde gutxi hauetan apologia oso bat egitea. Testua idazteko baldintzei buruzko alde bat ez da beti ongi ulertu: ez nuen akademiatik bakarrik idatzi, baizik eta parte hartu dudana giza mugimendu bateratuetatik ere bai, eta testuinguru jakin batean, hots, Estatu Batuetako ekialdeko kostaldeko komunitate gay eta lesbikoaren baitan, non liburu hau idatzi aurreko hamalau urteetan bizi izan bainintzen. Nahiz eta testuan subjektua testuingurutik kanpo azaltzen zaigun, bada hor pertsona bat; bilera, taberna eta ibilaldi anitzetan izan nintzen, eta askotariko generoak ikusi nituen, horietako batzuen bidegurutzean nengoela ulertu nuen, eta sexualitatearekin topo egin nuen bere hamaika kultura-ertzetan. Onartze eta askatze

sexualaren aldeko mugimendu garrantzitsu baten erdian beren bidea zehazten saiatzen ari ziren pertsona asko ezagutu nituen, eta mugimendu horren parte izateak dakarren bozkarioa eta frustrazioa sentitu nituen, bai mugimenduaren alde itxaropentsuan bai barne-desadostasunetan. Akademian nengoen garaian, pareta horietatik kanpoko bizitza ere bizi nuen, eta *Gender Trouble* liburu akademikoa den arren, niretzat, behintzat, trantsizio gisara hasi zen, Rehoboth Beach-en eserita nengoela, nire bizitzako alde anitzak lotu ahalko ote nituzkeen hausnurrean. Modu autobiografikoan idazteak, uste dut, ez du ni neu naizen subjektu hori testuingurutik kanpo uzten, baina agian, irakurleari nolabaiteko kontsolamendua emanen dio hitzen atzean norbait dagoela nabaritzeak (bazterrean utziko dut, memento, norbait hori hizkuntzan ematen delako auzia).

Atsegin handien eman didan gauzetako bat izan da jakitea gaur egun ere liburu akademiatik kanpo irakurtzen dela. Queer Nation-ek testua bere egin zuen bezala, ACT UP-en oihartzuna izan zuten *queer* auto-adierazpenaren antzerki izaerari buruzko hausnarketa batzuek; halaber, AEBko Elkarte Psikoanalitikoaren eta Elkarte Psikologikoaren kideek indarrean zuten homosexualitateari buruzko doxa berriz aztertzeraz bultzatu zituen testuak. Generoaren performatibitatearen auzia hainbat modutan bere egin eta egokitu zuten ikus-arteek, Whitney-ko erakusketek eta Los Angelesko Otis School for the Arts-ek, besteak beste. Liburuan azaltzen diren «emakume»aren auziari eta sexualitatearen eta generoaren arteko harremanari buruzko formulazioetako batzuek ere beren bidea egin zuten bai jurisprudentzia feministan bai eremu juridiko ez-diskriminatzailearen lan akademikoan, Vicki Schultz, Katherine Franke eta Mary Jo Frug-en obran.

Nik ere berriz hausnartu behar izan ditut *Gender Troublen* azaldu nituen zenbait jarrera, nire konpromiso politikoen ondorioz. Liburuan, «unibertsaltasun»aren aldarrikapena eskusibotasun negatibo eta baztertzailer gisara ulertzeraz jo izan nuen. Alta, konturatu naiz terminoak erabilera estrategiko garrantzitsua duela, hain zuzen, kategoria ez-funtsezko eta zabal gisara; horretaz ekintzaile talde zoragarri batekin lan egin nuenean ohartu nintzen, hasieran zuzendaritzako kide nintzela eta gero Gay eta Lesbianen Eskubide Zibilen Batzordeko buruzagi (1994-1997), zeinak eskubide zibilen inguruko askotariko kontuetan gutxiengo sexualak ordezkatzeko baititu. Orduan ulertu nuen nola unibertsaltasunaren baieztapena proleptikoa eta performatiboa izan daitekeen, oraindik existitzen ez den errealitate bati deitzen dio, eta alde batera uzten du artean elkartu ez diren zerruertz kulturalen aldiberekotasunerako aukera. Horrela, bada, unibertsaltasunaren beste ikuspuntu batera heldu nintzen, zeinak etorkizunari zuzentzen zaion itzulpen kulturalerako zeregin gisara definitzen baitu unibertsaltasun kontzeptua. Orain dela gutxiago, teoria politikoa-ekin eta, beste behin ere, unibertsaltasunaren kontzeptuarekin lotu nahi izan dut nire lana, Ernesto Laclau eta Slavoj Žižek-ekin elkarlanean idazten ari naizen liburu batean, hegemoniaren teoriari eta horrek ezker ekintzaile teorikoan dituen ondorioei buruzkoa (Verso argitaletxeak, 2000. urtean).

Nire pentsamenduaren beste dimentsio praktiko bat psikoanalisiarekin harremanean azaleratu da, psikoanalisia sektore akademikoan zein klinikoan ulertuta. Gaur egun, terapeuta psikoanalitiko progresista talde batekin nabil lanean, aldizkari berri batean, *Studies in Gender and Sexuality*, zeinak lan kliniko eta akademiko sexualitatearen, generoaren eta kulturaren inguru-

ko auziei buruzko eztabaida oparo batera eraman nahi baitu.

Gender Troublen kritikariek nahiz lagunek testuaren estiloaren zailtasuna azpimarratu dute. Ezbairik gabe, bitxia da (eta batzuentzat amorragarria) erraz kontsumi ezin daitekeen liburu bat estandar akademikoen arabera «arrakastatsua» izatea. Horrek sortzen duen ustekabea, agian, irakurlea gutxietatik dator, erronka diren testu konplexuak irakurtzeko irakurlearen gaitasuna eta desira gutxietatik, betiere konplexutasuna doakoa ez denean, desafioak balio duenean segurutzat jotzen diren egiak zalantzan jartzeko, eta egia horiek, hain zuzen, segurutzat jotzea zapaltzailea denean.

Iruditzen zait estiloa lur labainkorra dela, eta ez dela inondik inora guk eta ez beste inork kontzienteki aurreikusten ditugun helburuen arabera aukeratzen eta kontrolatzen dugun zerbait. Fredric Jamesonek argi eta garbi azaldu zuen hori Sartreri buruzko lehen liburuan. Noski, estiloak landu daitezke, baina erabiltzen ditugun estiloak ez dira erabat norberaren aukerakoak. Gainera, gramatika eta estiloa ez dira politikoki neutralak. Diskurtso ulergarria gidatzen duten arauak ikastea hizkuntza normalizatua buruan sartzea da, eta horrekin ez konformatzeko ordaindu beharreko prezioa ulergarritasunaren galera bera da. Hala gogorarazi zidan Adornoren tradizioari segitzen dion Drucilla Cornellek: sen onak ez du erradikaletik deus. Errotikako ikuspuntuak adierazteko biderik onena onartutako gramatika dela pentsatzea akatsa litzateke, gramatikak pentsamenduari, alegia, pentsagarriari berari inposatzen dizkion mugei erreparatzen badiegu. Hala ere, batzuei benetan gogai-karri zaizkie gramatika desitxuratzen duten edo zentzu proposizionalaren subjektua-aditza araua inplizituki zalantzan jartzen duten formulazioak. Irakurleei neke

handiagoa ematen diete, eta batzuetan, formulaziook eskatzen dietenagatik irakurleak mintu egiten dira. Bidezkoa al da minutako horiek «hizkera tolesgabea» eskatzea, edo kontsumitzaile gisa duten bizitza intelektualaren aurreikuspenetatik sortzen da kexa hori? Hizkuntza-zailtasun esperientzia horietatik lortzen ahal da, agian, balioren bat? Monique Wittigek argudiatu bezala, generoa bera gramatika arauen bidez naturalizatzen bada, generoa sortzen den gramatika ukatzeak ekarriko du, hein batean, generoaren bestelakotzea, maila epistemiko funtsezkoenean.

Argitasunaren aldeko aldarriak ahantzi egiten ditu ikuspuntu ustez «argia» sustatzen duten amarruak. Avital Ronell-ek gogora dakar Nixonek nazioaren begietara begiratu eta zera esan zuen unea: «zerbait argi eta garbi esanen dizuet», ondoren gezurra esateari ekiteko. Zer ezkututzen da «argitasun» zeinuaren atzean, eta zein izanen da errezelo kritiko jakin batzuk ez azaleratzeko ordaindu beharreko prezioa, argitasunaren etorrera iragartzten denean? Nork asmatzen ditu «argitasun» protokoloak eta noren interesei egiten diete mesede? Zer uzten dugu kanpoan komunikazio ororen nahitaezko irizpidezkat gardentasunezko estandar elizkoiak temati hartzen direnean? Zer ezkututzen du «gardentasun»ak?

Hazten ari nintzen garaian bertan zerbait ulertu nuen generoaren arauen indarkeriari buruz: anatomikoki gorputz anomaloa zuelako, osaba bat espetxeratu egin zuten, familia eta lagunengandik apartatu eta Kansaseko larreetan zegoen «institutu» batera bizitza osorako kondenatu zuten; lehengusu gayak etxetik alde egitera behartu zituzten, beren benetako nahiz irudikatutako sexualitatea zela eta; neure aitortza publikoak hautsak harrotu zituen, 16 urte nituela, eta ondoren, helduaroan, halakoa izan zen panorama, galdutako lan, amorante eta etxe guztie-

kin. Horrek gogor kolpatu eta kondenatu ninduen, baina, zorionez, ez ninduen geldiarazi plazeraren bilatzean eta nire bizitza sexualaren aitortza legeztatzeko aldarrikapenean. Zaila izan zen indarkeria hori identifikatzea, hain zuzen, generoa segurutzat jotzen eta, aldi berean, bortizki zaintzen zelako. Auresuposatzen zen generoa ezein giza ekintzak aldatu ezin zuen sexuaren adierazpen naturala edo ezaugarri kulturala zela. Bizitza baztertuaren indarkeriari buruzko zerbait ere ulertu nuen, «bizitza» izendatzen ere ez den horrena, zeinak, espetxeratzen bada, bizitzaren gabetzea edo heriotza-epai etengabea baitakar. Uste dut liburuan generoa «desnaturalizatze» ahalegin tematia desira indartsu batetik sortzen dela, bai sexuaren morfologia idealek inplikatzeko duten indarkeria arauemailea ezeztatze desiratik, bai sexualitateari buruzko ohiko diskurtso akademikoetan oinarritzen diren heterosexualitate natural edo ustezkoaren inguruko suposizio zapaltzaileak ezabatzeko desiratik. Desnaturalizazio horri buruz idazteko arrazoia ez zen bakarrik izan hizkuntzarekin jolasteko nahia edo teatrotzko pailazokeriak «benetako» politikari lehenesteko nahia, zenbait kritikarik hala adierazi badute ere (antzerkia eta politika beti bereizirik baleude bezala). Bizitzeko desiratik sortu zen, bizitza posible egiteko eta «posiblea» bere horretan hausnartzeko desiratik. Nolakoa zatekeen mundua nire osabarentzat, senideak, lagunak edo bestelako harreman motarik ondoan izan balu? Nola berrazaldu behar ditugu pertsonengan eragina duten muga morfologiko egokiak, arautik aldentzen diren horiek bizi arteko heriotzara kondenatu ez ditzaten?

Zenbait irakurlek galdetu dute ba ote dagoen arrazoirik *Gender Trouble* generoaren aukerak zabaltzea nahi izateko. Zera galdetzen dute: zer helbururekin sortzen dira generoaren konfigurazio berri horiek, eta nola ezberdin-

tzen ahal ditugu? Galdera horrek, gehienetan, aldez aurreko premisa bat du, hots, testuak ez duela aurkezten pentsamendu feministaren dimentsio preskriptiborik edo arauemailek. Bistan denez, elkargune kritiko horretan, «arauemaile»k bi adiera ditu, behintzat, maiz erabiltzen dudana hitza baita, generoaren ideal jakin batzuek darabilten indarkeria mundutarra deskribatzeko asmoz, batez ere. «Arauemaile» erabili ohi dut «generoa gobernatzen duten arauetako dagokion» zentzuan. Baina «arauemaile» kontzeptua justifikazio etikoari ere badagokio, nola ezarri den eta zer ondorio zehatz dituen. *Gender Trouble* galdera kritiko hau egiten zuen: nola ekiten diogu generoa bizitzeko moduari buruzko epaiak emateari, hemen azaldu ditugun deskribapen teorikotatik oinarrituta? Ez da posible generoaren molde «arauemaile»ei uko egitea aldi berean mundu generoduna izan beharko zukeenari buruzko ikuspegi arauemaile jakin bat eman gabe. Alta, adierazi nahi dut testu honetako ikuspegi arauemaile positiboak ez duela hartzen eta ezin duela hartu forma preskriptiborik, hala nola: «irauli dezagun generoa esaten dudana gisan, eta bizitza ona izanen da».

Halako baieztapenak egiten dituztenek edo generoaren adierazpen subertsiboaren ala ez subertsiboren artean erabakitzeko prest daudenek deskribapen batean oinarritzen dituzte beren epaiak. Generoa modu honetan edo beste horretan agertzen da, diote, eta orduan, epai arauemaile bat egiten dute itxura horiei buruz eta dirudien hori oinarritzat hartuta. Baina, zerk baldintzatzen du generoaren beraren itxuren eremua? Tentagarria izan liteke honako bereizketa hau egitea: generoaren azalpen deskriptibo batek generoa ulergarri zerk egiten duen azaltzen du, besteak beste, bideragarritasun-baldintzen inguruko azterketa bat egiten du; azalpen *arauemaile*

bat, ordea, generoaren zer adierazpen diren onargarriak eta zein ez galderei erantzuten saiatzen da, eta horretarako, adierazpen horiek aipatu moduan ezberdintzeko arrazoi sendoak ematen ditu. Alta, «zer ezaugarritzen da *genero* hitzarekin?» galderak berak botere-eragiketa nagusiki arauemailea baiesten du, hots, «zer gertatuko da» esaldiaren eragiketa iheskor bat «zer gertatzen da» izenburupean. Horrela, bada, generoaren alorraren deskribapena bera ez da inolaz ere eragiketa arauemailearen galdera baino lehenagokoa, eta ezin da eragiketa horretatik bereizi.

Ez dut asmorik epaiak emateko subertsiboa ez-subertsibotik bereizten duenari buruz. Epai horiek testuingurutik kanpo eman ezin direla pentsatzeaz gain, epaiok luzaroan irauteko moduan ezin egin daitezkeela uste dut («testuinguruak» berez dira denbora-aldaketak dituzten eta funtsezko batasun eza agerian uzten duten unitate postulatuak). Metaforek, denborarekin kontzeptu gisara sendotzean, metaforikotasuna galtzen duten bezala, errepikatzearen errepikatzeaz ekintza subertsiboek kluxe ahul bihurtzeko arriskua dute, eta are gehiago merkantzia-kultura batean errepikatzen badira, non «subertsiboak» merkatu balioa baitakar. Subertsiboaren irizpidea izendatzeko ahalegin orok porrot egingen du, eta hala behar du izan. Beraz, zer dago jokoan termino hori erabiltzean?

Oraindik ere gehien kezkatzen nauen auzia mota honetako galderak dira: zerk osatuko du bizitza ulergarri bat eta zerk ez, eta nola erabakitzen dute aurretiaz genero arauemaileari eta sexualitateari buruzko aurreuposizioek zer izendatuko dugun «gizatiar» eta «bizigarri»? Bestela esanda, nola funtzionatzen dute genero arauemailearen aurreuposizioek gizatiarrari buruz dugun deskribapenaren eremua bera mugatzeko? Zer bidek

erakutsiko digu botere zedarriztaile hori, eta zer bidek ahalbidetuko digu hori eraldatzea?

Generoaren dimentsio eraikia eta performatiboa azaltzeko *Gender Trouble* darabilen trabestismoaren inguruko eztabaida ez da, egia esan, subertsio *eredu bat*. Hanka sartzea litzateke ekintza subertsiboaren paradigmaz edo, baita ere, ekintza politikoaren eredutzat hartzea. Auzia aski bestelakoa da. Norberak uste badu gizon bat ikusi duela emakume gisara jantzita, edo emakume bat gizon gisara, pertzepzio horietako bakoitzaren lehenengo terminoa hartzen ari da norbera generoaren «errealitate»tzat: konparazioaren bidez sartzen den generoak «errealitatea» du faltan, eta irudipenezko figura da. Pertzepzio horietan, non itxurazko errealitate bat irrealtasun batekin lotzen baita, uste dugu badakigula zein den errealitatea, eta generoaren bigarren itxura hori artifizio huts, jolas, faltsukeria eta ilusiotzat jotzen dugu. Baina, zein da pertzepzioa modu horretan oinarritzen duen «generoaren errealitate»aren zentzua? Agian uste dugu badakigula zein den pertsonaren anatomia (batzuetan ez, eta segur aski ez genion erreparatuko deskribapen anatomikoaren mailan dagoen aldaerari). Apika, pertsona horrek daramatzen arropetatik ondorioztatzen dugu jakintza hori, edo arropak erabiltzeko modutik. Hori jakintza naturalizatua da, nahiz eta zenbait inferentzia kulturaletan oinarritzen diren, inferentzia horietako batzuk arras okerrak izanagatik ere. Egiaz, adibidea trabestismotik transexualitatera eramaten badugu, ezin izanen dugu anatomia egonkorraren inguruko epaia ondorioztatu gorputza estaltzen eta osatzen duten arropetatik abiatuta. Gorputz hori ebakuntza aurrekoa, bitartekoa edo ondokoa izan daiteke; gorputza «ikusteak» ere ezin diezaioke, agian, galderari erantzun, zeren eta *zein kategoriaren bitartez ikusten dugu?* Gure ohiko per-

tzepzio kultural serioek huts egiten duten unean, ikusten dugun gorputza ziurtasunez interpretatu ezin dugun unean, orduan da, hain zuzen, aipatu gorputza gizonarena edo emakumearena ote den segur esan ezin daitekeen unea. Kategorien arteko zalantzak berak osatzen du aipatu gorputzaren esperientzia.

Kategoria horiek kolokan jartzen direnean, generoaren errealitatea ere krisian sartzen da: dagoeneko ez dago argi erreala eta irreal bereizten zituen muga. Eta orduan dugu aukera jabetzeko «erreal» tzat hartzen dugun hori, generoaren ezagutza naturalizatu gisara ikusten dugun hori, errealitate aldakorra eta berriz hausnartzekoa baino ez dela. *Subertsiboa* edo beste edonola esan diezaiokegu. Nahiz eta ideia horrek, bere horretan, ez dakarren iraultza politiko bat, ez da posible iraultza politikorik posibleari eta errealari buruz dugun ikusmoldea goitik behera aldatu gabe. Batzuetan, gainera, aldaketa hori jardun jakin batzuen ondorio da; jardunok beren teorizazio esplizituaren aurretik daude, eta gure funtsezko kategoriak berriz hausnartzera bultzatzen gaituzte: zer da generoa, nola sortzen eta birsortzen da, zer aukera ditu? Horrela, bada, generoaren «errealitate»aren eremu egonkor eta objektu bihurtua bestelakoa izan zitekeen eremutzat hartzen da; zehazki, ez hain bortitza izan zitekeen eremutzat.

Liburu honen xedea ez da trabestismoa egiazko eta ereduizko genero baten adierazpentzat aurkeztu eta laudatzea (hala ere, garrantzitsua da noizbehinka agertzen zaigun trabestismoaren gutxiespenari uko egitea), baizik eta argi uztea generoaren ezagutza naturalizatua errealitatearen lehentasunezko zedarritze bortitz gisara gauzatzeko dela. Genero arauak (dimorfismo ideala, gorputzen osagarritasun heterosexuala, maskulinitate eta feminitate egoki eta desagokiaren arau eta idealak, zeinetatik

asko baitira araztasunaren arraza-kodeen eta mestizajearen aurkako tabuen ondorio) zehazten duten heinean zer izanen den ulergarriki gizatiarra eta zer ez, zer sartuko den «errealitate»aren zakuan eta zer ez, ezarriko dute eremu ontologikoa, non gorputzei bidezko adierazpenak eman ahalko baitzaizkie. *Gender Troublen* zeregin arauemaile positiborik bada, hau da: nabarmentzea bidezkotasan hori zabaldu egin behar dela faltsutzat, irrealtzat eta ezin ulertuzkotzat jo izan diren gorputzetaraino. Trabestismoa adibide bat baino ez da, adierazteko «errealitatea» ez dela orokorrean pentsatu ohi dugun bezain finkoa. Adibide horrekin, generoaren «errealitate»aren hauskortasuna bistan utzi nahi da, genero-arauek darabilten indarkeriari aurre egiteko.

Testu honetan, beste batzuetan egin bezala, saiatu naiz ulertzen zer izan daitekeen ekintza politikoa, zeren eta ezin baita bereizi ekintza hori ondorio den boterearen dinamiketatik. Performatibitatearen errepikatzeke ahalmena ekintza-gaitasunaren teoria bat da, bere posibilitatearen beraren baldintza gisara boterea ukatu ezin duen teoria. Liburuak ez du performatibitatea bere dimentsio sozial, psikiko, gorputzezko eta tenporalen arabera aski azaltzen. Nolabait, hutsune hori betetzeko nahia hurrengo argitalpen anitzen ardatz izan da, egin dizkidaten hamaika kritika bikainei erantzunez.

Beste hainbat kezka sortu dira liburu honen inguruan azken hamarkadan, eta beste argitalpen batzuekin saiatu naiz horiei erantzuten. Gorputzaren materialtasunak betetzen duen lekuari buruzko ikuspuntua *Bodies that Matter* libururako hausnartu eta berrikusi nuen. Azterketa feministek «emakume»en kategoria beharrezkoa ote duten galderaren inguruko usteak zuzendu eta garratu ditut «Contingent Foundations» testuan, zeina Joan W. Scottekin batera editatu nuen *Feminists Theorize the*

Political (Routledge, 1993) liburuan eta hainbat autorek sinaturiko *Feminist Contentions* (Routledge, 1995) izenekoan kaleratu baitzen.

Ez dut uste postestrukturalismoak idazketa autobiografikoaren heriotza adierazten duenik, baina agerian uzten du, hori bai, «nia» hizkuntzaren bidez adierazteko zailtasuna; izan ere, zuk irakurtzen duzun «ni» hori hizkuntzan pertsonen baliabideak arautzen dituen gramatikaren ondorio da. Ez nago eraikitzen nauen hizkuntzatik kanpo, baina «ni» hori posible egiten duen hizkuntzak ere ez nau baldintzatzen. Hori da auto-adierazpenaren harremana, horrela ulertzen dut nik. Esan nahi duena da ez naizela zure aurrean sekula agertuko elkarrekin egotea ahalbidetzen duen gramatikatik bereizirik. Gramatika hori zeharrargizat hartzen badut, orduan ezinen dut nabarmendu preseski ulergarritasuna egonkortzen eta ezegonkortzen duen hizkuntzaren esfera hori, eta hala balitz, nire proiektua, hemen irakurlearentzat azaldu dudana zapuztuko nuke. Ez dut zaila izan nahi, baizik eta zailtasun bat agerian utzi, zailtasun hori gabe ezin baita inolako «ni» rik agertu.

Zailtasun horrek dimentsio jakin bat hartzen du ikuspegi psikoanalitikotik begiratzen badiogu. Hizkuntzan «ni»aren iluntasuna ulertzeko egin ditudan saiakeretan, psikoanalisisira hurbiltzeko joera izan dut *Gender Trouble* argitaratu nuenetik. Esanen nuke psikearen teoria boterearen teoriatik polarizatzeko ahalegin ohikoak kontrako eragina duela, zeren eta generoaren molde sozialak zapaltzaileak baitira, hein batean, sortzen dituzten zailtasun psikikoen ondorioz. Foucault eta psikoanalisisa batera zer kasutan pentsa daitezkeen hausnartu nahi izan nuen *The Psychic Life of Power* (Stanford, 1997) liburuan. Psikoanalisisa erabili izan dut, halaber, performatibitatearen ikuspuntuak noizean behin hartu ahal izan

duen boluntarismoari gainjartzeko, horrek ekintzaren teoria orokorrago bat ahultzen utzi gabe, betiere. *Gender Troubleri* egin dizkioten interpretazio batzuek diote generoa asmakuntza propio hutsa dela edo aurkezpen generodun baten esanahi psikikoa zuzenean bere kanpoaldearekin interpretatu ahal dela. Bi jarrera horiek urteekin zehaztu behar izan dira. Gainera, batzuetan, nire teoria performatibitatea zerbait linguistikoa dela esatearen eta teatraltzat hartzearen artean dabil, joan-etorrian. Azkenean, ondorioztatu dut bi interpretazioak nahitaez loturik daudela, kiasmo bidez edo, eta hizkuntza-ekintza botere-eredu gisara berradierazteak bi noranzkoetan jartzen duela arreta, bai antzerki bai hizkuntza dimentsioetan. *Excitable Speechen* arrazoitu nuen diskurtso-ekintza aldi berean dela zerbait egina² (beraz, teatrala, jendaurrean aurkezten dena eta interpretazio mendedagoena) eta zerbait linguistikoa, eta solas linguistikoe-kin duen lotura inplizituaren bidez efektu multzo bat sortzen duela. Diskurtso-ekintzaren teoria linguistiko bat gorputzaren keinuekin nola erlazionatzen den jakin nahi badugu, aski da kontuan hartzea diskurtsoa bera ondorio linguistiko zehatzak dituen gorputz-ekintza dela. Horrela, bada, diskurtsoa ez da gorputz-adierazpenarena ala hizkuntzarena bakarrik, eta diskurtsoaren hitza eta ekintza izaera nahitaez da anbigua. Anbigutasun horrek eragina du homosexualitatearen aitortza publikoaren praktikan zein hizkuntza-ekintzaren botere matxinoan, eta eragina du, baita ere, hizkuntzan, bai gorputz bidezko sedukzioaren bai min egiteko mehatxuaren baldintzatzaile gisa.

2 Itzultzailearen oharra: jatorrizkoan *performed*, «antzeztu» eta «egin» adierak dituena, besteak beste.

Orain liburu hau berridatzi beharko banu gaurko egoerara ekarriz, transgeneroari eta sexuartekotasunari buruzko hausnarketa bat gehituko nioke, eta azalduko nuke bi diskurtso motetan genero-dimorfismo ideala nola gauzatzen den eta zein diren gai horiek kirurgia-ebakuntzarekin dituzten lotura anitzak. Arrazazko bihurturiko sexualitatearen inguruko eztabaida bat ere gehituko nioke, eta, zehazki, azalduko nuke mestizajearen (eta arrazen arteko sexu-harremanen erromantizazioaren) aurkako tabuak funtsezkoak direla generoak hartzen dituen molde naturalizatu eta desnaturalizatuentzat. Espero dut gutxiengo sexuak identitate kategoriatan sinpleak gaintutuko dituen koalizioa osatuko dutela, bisexualitatearen estigma bertan behera utziko duen eta gorputz-arau baztertzaileek ezartzen duten bortizkeriaren aurka borrokatu eta hura deseginiko duen koalizioa. Nahiko nuke hala koalizio batek oinarri izatea bai sexualitatearen konplexutasun menderaezina bai botere diskurtsibo nahiz instituzionala duten hainbat dinamikan sexualitateak duen inplikazioa. Ez nuke desioko, gainera, inork berehala hierarkiari boterea murriztu eta horren dimentsio politiko emankorrei uko egin nahi izatea. Jakin badakit gutxiengo sexual bateko kide izateagatik aintzatespena jasotzea eginkizun zaila dela legearen, politikaren eta hizkuntzaren diskurtso menderatzaileen baitan, baina oraindik ere uste dut bizirauteko behar-beharrezkoa dela aintzatespen hori. Identitateak kontra egiten diogun boterearen tresna bihurtzeko duen aukerak beti mehatxatuko du identitate kategoriak mobilizatzea, politizazioa helburu. Hori ez da, ordea, identitatea ez erabiltzeko arrazoi bat, ezta identitateak gu ez erabiltzeko arrazola ere. Ez da botereak purifikatutako jarrera politikorik, eta, agian, ezpurutasun horrek berak sortzen du ekintza gaitasuna, erregimen arautzaileen balizko etenaldi eta era-

bateko aldaketa gisa. Alta, «irreal»tzat jotzen diren horiek errealarari eusten diote oraindik ere, adostasunez eta zinez eutsi ere, eta ezusteko performatibo horrek hil ala biziko ezegonkortasuna sortzen du. Beraz, liburu honek xede zuen talde-borroka baten bizitza kulturalaren atal izatea; talde-borroka horrek nolabaiteko arrakasta zuen, eta jarraituko du izaten, bazter sexualetan bizi edo bizi-tzen saiatzen diren horiek bizitza bizigarria lortzeko aukerak hobetzeko borrokan.

Judith Butler
Berkeley, Kalifornia, 1999ko ekaina.